

Baso pisten eta bideen araudia onartu du plenoan Urretxuko Udalak

Urretxu » Mendietako pista eta bideen inguruan, hainbat arau eta debeku aho batez onartu ditu udalbatzak.

ALEX AREIZAGA


Herenegun, hilabeteko azken astelehena izaki, Urretxuko Udalak Ohiko Osoko Bilkura egin zuen. Bertan bi gai nagusi jorratu ziren; PERI delakoaren aldaketa A etxaldeko A.09 eraikuntza unitatea bertan sartzeko eta erabilerari publikoko bide eta mendiko pista pribatuaren erabilerari eta zaintza arautzeko hitzarmenaren behin betiko onspena.

Lehen puntu honetan alkateak azaldu zuenez, hasieran eraikin

hori berritzeko proiektu bat aurkeztu zen. Zorua lege berriaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari proiektu honen gaineko txosten bat eskatu zitzaion eta honek baldintza pare bat ezarri zituen. Batetik eraikinen aurrealdeak oso ondo bereziki behar ziren eta bestetik, eraikina altueran igo beharra zegoen. Proiektuak bere bidea jarraitu zuen eta hainbat eztabaidaren ondoren, PERI plana aldatzeko erabakia aho batez hartu zuten atzo, proiektu hau bertan sartu ahal izateko. Alkateak erabaki hau txalotu zuen, «herriarentzat oso ona» izango dela esanaz.

Mendiko bideak

Bigarren puntuan ere erabateko adostasuna izan zen osoko bilkuran. Hemen baseritarren batzor-



PERIn sartuko duten eraikina.

detik etorritako proposamen bat landu zuten; Irimo eta inguruetako bide eta mendiko pisten erabilerari eta zaintza arautuko dituen hitzarmena, hain zuzen ere. Testu honek bide luzea egin du, duela urte batzuk hasi baitziren ideia honekin lehen azterketak egiten. 2003. urtean araudi bat zehaztu zen, baina atzo azaldu zuten, orduko arautegia motz gelditu da egungo beharrei erantzuteko orduan eta berritu beharra dago.

Erabilerari publikoko bide eta baso pisten mantenimenduari %75a udalak hartuko du bere gain; gainontzekoa bidearen jabeek ordainduko dute. Era berean, bide, pista edota horko bazter eta beste

elementu batzuen garbiketa eta mantenimenduari ardurabidearen jabearena izango dela ere jasotzen du hitzarmenak.

Bestetik, ibilgailuen erabilerari dagokionean, hainbat muga ezarriko dira erabilerari publikoko bide pribatuari; gehieneko abiadura orduko 30 kilometrokoa izango da eta ganaduak beti izango du lehen tasuna. Motordun ibilgailuen inguruan ere debekuak ezarri dira; horretarako propio zehaztutako bideetan izan ezik, debekatua egongo da hauen ibiltzea.

Bisitariari dagokionean, sortutako hondakin edo zaborrak euren ardurapean gelditzen dira; eta horretarako egokitutako tokietan izan ezik debekatuta egongo da sua egitea eta baita artzaintzarako ohiko guneetan txakurrak aske uztea ere.

Trafiko hitzarmena

Bilkuraren amaieran EAKo zinegotzi batek Zumarragako udalarekin hartutako trafiko hitzarmenaren egungo egoeraz galdetu zuen, eta alkateak gai horretaz Zumarragako alkatearekin duela egun gutxi jardun zuela eta laster elkarlana berriz abiaraziko dela azaldu zuen, horretarako pertsona egokienak izango zirenak zehaztu ostean.

Dena prest dute larunbateko jaialdirako

Legazpi » Larunbatean egingo den jaialdia prestatzeko lanetan buru-belarri dabilta egunotan legazpiarrek.

A. AREIZAGA

Legazpiarrek dena prest izan nahi dute larunbat honetan ospatuko duten jaialdi handiari begira. Horretarako, azken egunetan hainbat entsegu eta saio egiten ari dira le-



Legazpiarrek buru-belarri dabilta jaialdirako entseguetan. ASIER ZALDUA

gazpiarrak. Jaialdi honetan, maki bat herritarrek hartuko du parte, Legazpi duela 400 urte Seguratik «aske» gelditu zela gogoratze-ko.

Jaialdia, larunbatean

Entsegu hauen guztien fruitua, larunbatean ikusi ahal izango da. Herriko kultur arioko taldeen ordezkariek ikusteko aukera izango da larunbatean, 19:30etatik aurrera legazpiko Urbeltz pilotalekuan egingo den jaialdian.

«Ertzainen jazarpena» salatu duten Goierriko bi gazte epaitu dituzte

Goierri » Puzker baten ondorioz «autoritateari errespetu falta» leporatu diote epaitu duten gazteetako bati.

ALEX AREIZAGA

Atzo goizean AHTren aurkako mobilizazioetan parte hartu duten bi gazte goierritarren kontrako epaiketa egin zuten Tolosan. Gaz-

te hauek «poliziaren aldetik jazarpena» jasaten dutela salatu dute azken egunetan. Bata, urretxuarra, «puzker bat bota izanagatik autoritatearen aurkako errespetu falta» burutu izanaz epaitu dute eta bestea, ordiziarra, gertaera hori eman zenean identifikatzeari uko egin izanaz.

Atzoko epaiketaren aurretik elkarretaratzea egin zuten ehundik gora gazteek Tolosako epaitegiarean, Goierriko hiru ikastetxetan



Protesta egin zuten atzo Tolosako epaitegiaren aurrean. TOLOSALDEKO HITZA

geldialdiak egin ostean. Epaiketa 12:00etan hasi zen eta hasieran sartzen utzi nahi ez bazieten ere, azkenean 10 lagunek epaiketan egon ahal izan zuten, publiko moduan. Bertan gazteetariko batek adierazi zuenez, «puzkerra aitz-

kia gisa erabili dute ertzainek, gazte multzo baten aurkako jazarpenarekin jarraitzeko».

Fiskalak 30 egunez bakoitzari egunean 6 euroko isuna ezartzeko eskatu zuen; epaia datozen egunetan jakinaraziko dute.

Laburrak

Beasain-Bergara errepide zatia 2009. urterako

URRETXU-ZUMARRAGA » Urretxu eta Zumarragatik igaroko den Beasain-Bergara errepide zatia 2009. urterako amaitua egotea espero duela adierazi du Eneko Goia, Bide Azpiegiturako diputatuak. Errepide zati hau egiteko orduan, lanak atzeratu dituzten hainbat oztopo izan dituzte, Espainiar Sare Elektrikoaren torre baten leku aldatzea edota Adif enpresaren eskaera bat, esaterako.

Zingi Zango elkartearen lehiaketako saridunak

LEGAZPI » Zingi-Zango elkartearen lehiaketak baditu jada saridunak. Hauek dira sariak eta izenak: Hitzaren urtebeteko harpidetza Xabier Urzelai Suduperentzat izan da. Hitzaren aterkia eta erosketa poltsa Isabel Sanz Gurrutxagarentzat eta Zingi-Zangoren kamiseta bana Andoni Zabaletari eta Eider Agirriari egokitu zaizkie. Sariak, ostegunetik aurrera jaso daitezke Legazpiko Ogi Berri okindegian.

Erreka Egunean parte hartzeko deialdia zabalik

URRETXU-ZUMARRAGA » Larunbatean Erreka Eguna ospatuko dute Urretxun eta Zumarragan. Goizeko 11:00etatik 13:00etara bitartean, Urola ibaia garbituko dute. Amaitzean, pintxoak banatuko dituzte Areizaga-Kalebarren plazan, trikitiaz lagunduta. Bi bide daude izena emateko: hiri.ur@urretxu.net helbidera mezu bat bidalita (izen-bizenak, jaiotze data eta DNI zenbakiarekin) edo teletonoz, 943 03 80 82 zenbakiara deituta.

Zumarragako KZ Guneak ikastaroak eskainiko ditu

ZUMARRAGA » Zumarragako KZ Guneak hainbat ikastaro eskainiko ditu urrian; Interneteko oinarrizko ikastaroa, messengerra edota Kutzaren tramiteak internet bidez egiten ikasteko aukera izango da. Izena KZ Gunean eman daiteke, astelehenetik ostiralera (10:00-14:00 eta 16:00-20:00).

Tragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Goierriko jatetxe batek zerbitzaria behar du astelehenetik ostiralera afanak emateko bakarrik. Deitu lehenbailehen: 686 901815.

■ **Sukaldaria.** Sukaldean ikasi nahi duen gaztea behar du Lazkaoko Batzokiak. 620 825 174.

ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Garaje itxia alokatzen da Ordizian. 656 766 610.